


9. zenbakia
2000ko maiatzas

URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

U

A close-up portrait of Lexuri Gallastegi, a woman with short, dark, spiky hair, smiling warmly. She is wearing a dark blue jacket over a light blue t-shirt. The background is a vibrant green with a vertical yellow stripe.

Lexuri
Gallastegi
“Dantzak neure
burua ulertzen
laguntzen
dit”

• harkaitz cano • mikel urdangarin • akabuko punte •

rudia

Badator...

...uda, eguraldi ona... eta
hondartzak jendez gainezka
izango ditugu; akabo argazkiak
erakusten duen moduko
paseo bakartiak!
Barinatxe hondartza.

ARGAZKIA: MIKEL MARTINEZ



Bizkaiko Foru
Aldundia

Aldizkari honetarako Bizkaiko Foru Aldundiko
Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du

ARGITARATZAILA: Boluntzarreta E.B.E. HELBIBIDEA: Amezti 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48990 GETXO / e-mail: aldizkaria@euskalnet.net /

Posta Kutxa 171 / Tel & fax: 94 491 13 37 ZUZENDARIA: Jokin Aspuru ERREDAKZIOA: Esti Ezkerra, Andoni Llosa, Konrado Mugerza, Verónica Muñoz

ARGAZKI ARDURADUNA: Mikel Martínez TESTUEN ORRAZKETA: Joseba Butron INFOGRAFIA: Guillermo Almagia MARRAZKILARIA: Gorka Vázquez KOLABORATZAILAK: Bittor Egurrola, Jokin de Pedro, José

Ignacio Lobo, Xabier Buenetxea, Itsaso Arana, Gaizka Escudero, Unai Elorriaga ADMINISTRAZIOA: Konrado Mugerza PUBLIZITATEA: Amaia Bilbao (94 463 92 63, 94 491 13 37) INPRIMATEGIA:

GESTINGRAF



Barrukoa Taberna

Telletxe 5



ALGORTA

SANTANA KIOSKOA

Prentsa eta aldizkariak

Santana kalea, Amaiarekin bat

BEROGAILU ETA ITURGINTZA EZARKE-



T: 430 53 46

Sarrikobaso 15 48990



"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"

Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Libxarriak

Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
T: 430 22 13 T: 460 02 88
GETXO ALGORTA

Turikaldai

JOKIN GARATE BAYO
Neguriko Etorbidea 9
T: 491 14 87
48990 NEGURI

KIMETZ GARATE AZURMENDI
Aingeruaren etorb. 4B
(sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 GETXO

e-mail elkarrizketa

Keniatik, Illart Arrieta Otaola

Kenia

Altera Aurrera Etxera Iaso Irudiak Irudi Inprimatu Bilatu Stop

Helbidea: illart.arrieta@unesco.unon.org

Jendea Interesgarria Bilatu Internet e-mail Software



- Illart Arrieta Otaola, 26 urte, getxotarra
- Marketing eta Enpresa Kudeaketa ikasketak eginak ditu
- Duela bi urte Kenian dabil lanean

"Kontsumismo azeleratuari stop esan behar diogu"

Zehazki non bizi zara Illart?
Aurten Nairobiko (Kenia hiriburua) Westlands auzoan. Zori onekoa naiz; aberatsekin nago orain, baina ziurrenik abuztua baino lehen lekuz aldatuko naiz.

Zertan zabilta hor? Zer lan egiten duzu?
"United Nations Educational, Scientific and Cultural Organization" (UNESCO) deritzon erakundearen lan egiten dut bolondres, zehazki, Afrikako Ekialdeko Regionaren Komunikazio kontsalarientzat.

Esan didate Nazio Batuen Erakunde (NBE) barruko programaren batean zabilaz lanean...
Eusko Jauriaritzak finantziaturiko programa da. Dagoeneko hiru promozio bidali ditu munduan zehar. Uste dut dagoeneko, Europan izan ezik (je-je-je), kontinente guztietan jendea daukagula.

Kontatu apur bat zure egun bat hor nolako den?
Kurrante baten egun normala: 6.30etan altxatu; lanera joateko, NBE erakundearen autobusa hartzeko hauts artean 20 minutuz ibili, edo autostop egin edo autoren bat daukaten urbanizazio bati buruz elkartu. Horrek guztiak funtzionatzen ez badu, kolokoraino beteta datozen bi "matatu" (furgonetak) hartzen ditut. Lan egin eta gero bazkaldu. Iate merkea da afrikar kioskoko batera baldin bazoaz. Kioskoko hauek egur eta txapaz eginda dagoz eta 45/245 pezetagatik jan daitezke. 17:00etan lana bukatu eta etxera itzultzen naiz. Gero pisinara joaten naiz, etxelagunekin txateatu, afaría eta ohera. Ofiziala baten bizimodu normala egiten dut, errutinarioa uste dut. Asteburuetan errutina hori aldatu egiten da.

Noiz joan zinen eta noiz arte geratzeko asmoa daukazu?
1998ko abuztuaren etorri nintzen, bi urteko kontratua daukat baina hemen lan egiteko beste kontratuen bat sortuko balitz, hartu egingo nuke. Zergatik aukeratu zenuen Kenia eta ez beste lekuren bat: Asia, Amerika?
Betidanik Afrika atsegin izan dut; dantzak eta erritualak... Afrikako irudi misterioitsu hori. Kanpotarra izanda, zelan hartu zaituzte hor?

Orokorrean ondo hartu ninduten, lanean adibidez. Baina beste edonon bezala badago ondo ikusten ez zaituen jendea, behar bada pertsona batzuk Keniako iragan koloniala oraindik buruan daukatelako. Eta ez hori bakarrik: hemen dauden "nzungu"ak (Kiswahili-eraz "persona zuria") pertsona aberatsak dira eta keniar gehienak, ordea, biroak. Batzuetan hiritik zoazenean edo "matatu"an... begirada zorrotzak sentitzen dituzu, esaldi ez aproposak... Ez da nire paranoia, hemengo lagun batzuek ere sentitu dute. Ez dut hemengo jende asko ezagutu; hala ere, nire taldean badaude bertako gutxi batzuk. Zaila da hemengo jendearekin bat egitea, arrazakeria handia dago eta guztien partetik; negargarria da.

Horko giroa egokitzeko, zer da gehien kostatu zaizuna?
Segurtasun eta askatasun ezarekin eguneroko bizitzea, baina hori ere gairatzea lor dezakezu; nire familia eta lagunak urrun izatea... Hala ere, alde on asko ere badaude: herri askotako jendea ezagutzeko aukera izan dut eta oso pozik nago horrekin.

Zer da herri horretan gehien estimatzen duzuna? Zer gustatzen zaizu gehien?
Kenian ikusi ahal ditudan pertsona eta tribu desberdinak. Kenian hiru jatorri desberdineko 61 hizkuntza daude, izugarria da. Nairobitik kanpo joatea gustatzen zail, parkeetan animaliak ikusi... Atsegin dut kultura guzti horien informazio pixka bat jaso eta gure herrikoarekin konparatzea.

Eta zer gubien?
Herri honen pobrezia eta goian, agintean dagoen batzuen nahia gauzek berdin jarraitzeko. Jendeak ezin du ezer egin egoera aldatzeko, kolonia denboretatik datorren kontua dela uste dut. Goiko postuei errespetu eta beldur handia diete. Zaila da agintari horiek harrapatzea eta egin dutenagatik ordainaraztea.

Etxetik urrun bizi izanda, zeren falta sentitzen duzu, zelako gauzak?
Gauetan kaletik ibiltzea (Txopos-etik, Usategitik...) itsasoaren soinua entzuten eta lagunekin hitz egiten. Hemen ez dago itsasorik ezta, garrantzitsuenak, segurtasunik. Bi sare eta hesi elektrifikatu batean bizitzeak kartzela ekartzen du gogora. Batzuetan nire hizkuntzan hitz egitea ere faltan sentitzen dut, Euskal Herrian dagoen giroa, ospatzen diren jaietako eta azoketako...
Zer da hemen bizi garenek ikasi beharko genukeena?
Bizio eta gauza material gehiegirik bizi zaretela, kontsumismo azeleratuari stop esan behar diozuela eta ez dakizuela zein ondo bizi zaren. Agurren bat...
Euskal Herrian nola edo hala sufritzen ari diren pertsona guztiak, hemen arazoak badaude ere, gure herrian ere baditugulako. Zorte ikaragarria daukat; hemen internetera konektatuta nago eta aldizkariak irakurtzeko aukera dut eta han egotea bezala ez bada ere, ideia bat har dezaket. Espero dut gauzak hobetuko aldatzea eta gure artean harrikada ikusi barik, nahi duguna lortzeko bide bat hartzen asmatzea.

Tengui Añene

ikimilikiliklik

JOSE IGUAZU LOBO



Aste Santua

Kristau-erlijioan, Erramu-domekan hasten eta Zapatu Santuan bukatzen den astea

da Aste Santua; Jesukristoren nekaldia ospatzen da. Gaur egun berriz, kutsu erlijio-

soa galdu eta gehienontzat oporren sinonimoa besterik ez da aste hau. Hala ere,

badira oraindik fedea bizi duten hainbat lagun.

Birjaiotza

Herdoil zaporeaz esnatu naiz. Masailen azalak maindire zuriekin bat egin du eta sudurretik odolaren biguntasun beroa senti dezaket.

Begi bat zabaltzen dut, kostata zabaldu dut begia, betile minuskuluak maitaleen gisara elkartu zaizkidalako. Ikusteko gaitasuna ematen didan bola magikoak logelako sabaia du abiapuntu eta zero, zuri kolorekoa, birjina. Bigarren begia zabaldu nahi dut, baina ezin, hau ere pega-pega eginda daukat eta. Gorputzeko muskuluak lotan dira, pisu itzela sentitzen dut, arnasa ere astuna eta geldoa da. Mihiarekin mugimendu txikiren bat egiteko gai banintz... Orain, orain atera dut mihia eta sudurra eta ezpainen arteko espazio fisikotik pasatu dut, ttuaren eta odolaren arteko batuketa kimikoak zapore herdoilduaren pentsamendura eraman nau berriro ere. Azkenik, bigarren begia zabaldu dut, baina orain ez dut sabaia ikusten, orain odolaren kolorea ikusten dut, maindireak gorritzindatu dira.

Ahal izan dudana esfortzurik handiena egin dut ohetik altxatzeko eta ispilura abiatu naiz pausu motzak emanez. Ispiluaren aurrean nago, odolatan nago, hiltzean nago, hil egin naiz, hil egin naiz.

USOA IRIGOIEN



ABERRI EGUNA Euskal Herriko herri gehienek erantzun zioten Aberri Egunean Udalbiltzak eginiko deiari. Euskal Herria nazioa dela eta nazio bati dagozkion eskubideak dituela adierazi nahi izan zuten milaka herritarrek. Urbe Kostako herrietan ere ospatu zen egun hau. Argazkian, Getxon eginiko ekitaldia ikus dezakezue. / ARGAZKIAK: MIKEL MARTINEZ

San Jorge eta herensugea



Zein irakurketa mota gustatzen zaizu gehien? Zer ari zara irakurtzen orain?

EGILEAK: IRUINE AGIRRE, AIALA ELORRIETA, MAITANE NEREKAN & KATRIN MUGERZA

Ba, ez dakit zein irakurketa mota den baina orain irakurtzen ari naizena Pio Barojaren "Aurora Roja" da.
Aitor Quintana, ikaslea (Algorta)

Nobela historikoak batez ere. Momentu honetan, "El Hombre Unidimensional".
Fernando Agirre, ingeniaria (Arriaguna)

Gazteei buruzko liburuak. Orain ez nabil bat ere irakurtzen, baina azkenekoa "Yerma" izan da.
Iruine Agirre, ikaslea (Algorta)

Intrigazkoak edo polizikoak. Baina oporretan ez dut irakurtzen.
Maitane Nerekan, ikaslea (Algorta)

Ba, irakurketa filosofikoak batez ere. "Ecce Homo" nago irakurtzen orain.
Juan Reñares, tomekanikaria (Leioa)

Intrigazko edo misteriozko literatura edo bestela gazteei buruzkoa. "Raquel" irakurtzen ari naiz orain.
Katrin Mugerza, ikaslea (Algorta)

Denetarik, asko gustatzen zait irakurtzea: nobela historikoak, polizikoak... Eta orain Torrente Ballesterren "Filomeno a mi pesar" nabil irakurtzen.
María Jesús Rabanal, altzafi errestauradorea (Algorta)

Beno, aspaldian ez dut ezer irakurri, baina, intrigazkoak ditut gustukoak.
Olaiz Llobregat, langabetua (Leioa)

basurto
algorta S.L.
altzariak
T: 4607162 - 4604244
telletxe 15, algorta

GAVRKO
GIZONENTZAKO MODA
Telletxe 5
ALGORTA
T: 4607084

María Jesús
ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA
Alangobarri 10
T: 4910821
ALGORTA
HARTU TXANDA

EREAGA
Bidaiak
Autobusak
T: 453 08 16 - 909 40 59 88
GETXO

Egunkariak
prentsa eta aldizkariak
nahi izanez gero, etxera eramaten dizugu egunkaria!!!
Algortako etorbidea 78
T: 94 491 27 34

VILLABOTAS
JATETXEA

Menu merke eta bariatuak
Especialitateen karta
Giro atsegina
T: 430 43 33
Villaondoeta 2, ALGORTA

MOROTXO

TORRENE 13
48990 ALGORTA
TF. 4911882

CALENDOS
RIKI
UMEAK
GAZTEAK
Kale Nagusia 30 - T: 4645543
AREETA

Lexuri Gallastegi

30 urteen bueltan dabilen berangoztar honek txikitatik du zainetan dantzaren pozoia. Euskal dantze-kin hasi zen, ondoren klasikoa eta azkenean dantza garaikidearen bidea aukeratu zuen. New York-en zazpi urte eman zituen Martha Graham eskola ospetsuan ikasten eta dantzan. New York Times-en ospetsuaren arreta ere merezi izan zuen. Duela hiru urte etorri zen Euskal Herrira bere ibilbidea gurean jarraitzeko.

TESTUA: ESTI EZKERRA / ARGAZKIA: MIKEL MARTINEZ

—New York-era jo zenuen ikastera; beharrezkoa da dantzari batentzat hara joatea?

—Gehienbat joan nintzen Martha Graham-en teknika ikastera, New Yorkeko bere eskola leku bakarra da horretan sakontzeko eta horregatik erabaki nuen hara joatea.

—Han zeundela aldaketarik nabaritu al zenuen?

—Dena. Hasieratik teknika oso zaila da, eta oinarri oso gogorra dauka. Baina bizitzan bezala da; handitzeko, hazteko borroka handia egin behar da. Hasieran gogorra izan zen, hizkuntza mailan ere, baina berehala konturatu nintzen dantzarako hizkuntzak ez duela garrantzi handirik. Apurka-apurka, hirugarren urtean, teknika ulertu nuen eta orduan hasi nintzen eraldatzen. Konturatu nintzen hango ikasketak hemengoaren aldean disziplina handiagoa zuela. Jende asko zegoen klaseetan, gehienak europarrak. Hara heldu eta ez dizute apenas kasurik egiten. Hasieran euli bat bezalako da iritsi berria, ez da inor. Zeozer ematen hasten zarenean, ondo ikusten bazaituzte, orduan egingo dizkizute zuzenketak. Hasieran ikusi eta entzun egiten nuen. Nire ustez, ikasteko horixe da garrantzitsua. Gero

beka eman zidaten han, eta Martha Graham-en bigarren konpainian aritzea eskaini zidaten. Lehenengo konpainiarekin kolaborazio lanak eta solista bezala ere dantzatu nuen. Azkenean, dena oso ondo atera zen baina hasierako urteak oso latzak izan ziren.

—Zazpi urte eman zenituen han, New York Times-en kritika onak lortu zenituen eta, hala ere, alde egitea, etxera itzultzea erabaki zenuen...

—Hasieran nuen jarrera ez nuen aldatu. Niretzat garrantzitsua hara joatea eta ikastea zen. Ez neukan hango konpainia batean dantza egiteko asmorik; egia esan, eskari bat izan zen eta horregatik ere pozik. Ni han urte bakarra emateko asmoarekin joan nintzen, baina denbora gehiago behar nuela ohartu nintzen. Azkenean zazpi urte eta erdi eman nituen han, nire ustez, denbora nahikoa, nahiz eta han, dantzari bat osatzeko hamar urte behar direla esaten duten. Nire gogoia, ordea, Euskal Herrira itzultzea zen, baina urtero joarren naiz New York-era. Azken bidaia irailean egin nuen; ez nuen emanldirik eskaini, aurreko bisetant bezala. Han aurkeztu nuen nire lehen koreografia, Tortura, minaren garrantziaz.

—Duela hiru urte itzuli zinen. Orduetik hona zertan ibili zara?

—Batez ere irakasten; lan asko daukat klaseak ematen-eta. Arroe Dantza Taldea sortu nuen, hasieran neuk bakarrik, eta gero bost geunden eta orain bi. Koreografiaen munduan lehen pausak ematen hasi naiz baina oraindik asko falta zait. Esan bezala, gehienbat klaseak ematen nabil eta dantza emanaldiren bat eskaintzen.

—Dantzak hemen ez omen du diru askorik ematen; gogorra izango da bide horretatik abiatzea, ezta?

—Bai, baina egia esan ez dut honetan diru askorik ikusi ezta EEBBetan ere. Martha Graham ere oso konpainia ona da eta beti dabilta diru aldeetik estu. Dantzariok, jan ahal izateko, beti ibili behar izan dugu eskolak ematen. Dantzari izan nahi izanez gero, diruz adukitzea burutik kendu behar den ideia da. Hemen dirulaguntzak jasotzerik ez dago. New York-en nengoela askotan etorri naiz hona Foru Aldundiko eta Jaurilaritzako beka eskatzera eta ez zidaten sekulan eman. Azkenean, Madriletik laguntza oso ona jaso nuen, eta EEBBetan ere besteren bat. Baina diruak, hobe esanda, diru

ezak, ez nau beldurtzen. Beti ibiliko naiz zorretan baina hiltzen naizenean, hor konpon; baten batek ordainduko du hileta (barreak).

—Sakrifizio handia eskatzen du dantzak; ordainetan zer ematen dizu?

—Nire ustez, bizitzan edozertan ondo aritzeko orduak sartu behar dira. Dantzak gorputza forman mantentzea eskatzen du, azken batean gorputzarekin hitz egin behar delako. Dantzan, norbere barru-barrura begiratu behar da eta nik, adibidez, dudak guztia kanporatzeko aukera dut. Dantzak neure burua ulertzen laguntzen dit. Baina azken finean hori artean, kirolean eta beste edozertan ere gertatzen dela uste dut.

—Duela gutxi Nazioarteko Dantza Eguna izan da, eta dantzariak merezi duten tokia eskatu dute. Zelako egoera bizi du gaur egun dantzak?

—Oso txarra da. Euskal Herrian, gainera, ez dute apenas lagundu, ez zaio publikitate askorik egin. Hori ere gure errua izan da, dantzari askok Euskal Herriatik kanpo, atzerri-ra jo dugulako ikastera. Hala ere, laguntza goitik etortzearen zain bagabiltza ez goaz inora. Egoera txarra den arren, bagabiltza geure tokitxo

egiten.

—Dantzaren inguruan topiko ugari daude, nesken kontua mutilena baino gehiago dela, etab. Zenbateraino da hori egia?

—Gizartea da horren errudun. Ni saiatu naiz nebeekin baina horiek beti errugbian jokatu dute; pentsatzen nuen azkena harrapatuko nuela eta txikitatik hasi nintzen berarekin, baina ezer ez. Dena den, uste horren erruduna gizartea da, beti jarri dituelako emakumeak alde batean eta gizonak bestean. Baina orain ume txikiei klaseak ematen nabil eta gehienak mutilak dira. Horrela hasi behar dugu, txikitatik dantza ikastolatan sartuz. Nik uste dut egoera poliki-poliki aldatuz doala.

—Jose Lainez dantzariak eta dantza zuzendariak, neskekin lan egitea nahiago duela dio, gogorragoak

“Dantzak neure burua ulertzen laguntzen dit”

direla.

—Horrekin ez nago ados. Egia esateko dantzan ikusi ditudan mutil guztietatik oso gutxi hunkitu naute, baina mutil zoragarriak ikusi ditut, indar handikoak. Orain arte gehienbat haiek bete duten rola neska laguntzearena izan da. Baina nik uste gauzak orain aldatu direla; mutilek indar handia daukate. Hala ere, ezin da konparatu. Neskek neska dira eta mutilak mutil.

—Etokizunari begira zer?

—Lan eta lan egitea. Nire helburua dantza Euskal Herriko borroka honetan arma bezala erabiltzea da. Eskenategiaren gainean Euskal Herri honen gatazka ipintzea dut helburu nagusi. Ni neu izateko, Euskal Herri aske batean bizi beharra daukat eta neurri batean dantza horretara zuzendu dut. Pertsona bezala Euskal Herri aske bat nahi dut eta ahal

dudan guztia egingo dut horren alde. Sarritan extralurtarra sentitzen naiz dantza munduko jendearen artean, baina tira. Nire lana beti Euskal Herriari zuzenduko diot.

—Zeure buruari datarik jarri ahal diozu dantzari agur esateko?

—Ez, neure burua dantza munduan baino ez dut ikusten. Datak lan proiektuei ipintzen dizkiet. Adibidez, udarako proiektu bat dugu, bideoen bitartez Euskal Herriaren arazoa azalduko dugu eta puntu batean dantzarekin uztartu. Ez dut neure burua mugatzen. Urteak oso arin igarotzen dira eta mugatuko banitu zozatu egingo nintzateke. n



Harkaitz Cano

Hogeita bost

urte baino ez ditu eta

honezkeru bost liburu

eman ditu argitara.

Idazle euskaldunen

belaunaldi berriaren

adibide dugu Harkaitz.

Apirilean Bizarra Lepoan

Euskara Elkarteko

“Irakurzaleen

txokoa”ren eskutik bere

azken liburuaren

gainean hainbat azalpen

eman zizkigun. Ondoren

berarekin egon ginen.



“Pasaia blues”,
Harkaitz Canoren
azken obra

Adibideak jartzerakoan ia instintiboki musikara jotzen du. Ez du erretzen, nahiz eta bere ipuin batzuk ke lodiz inguratuturik dauden. Eta postontziekin nahiko maniatikoa dela onartzen du. New Yorken bederatzita hilabete egondakoa, bost urteren ostean berriro poesia idazteari ekin zion han. Poema horiek osatzen dute bere hurrengo liburuaren haria.

—Zergatik idazten du Harkaitz Canok?

—Nire burua salbatzeko edo besterik egiten ez dakidalako. Agian, zerbait kreatiboa egiteak dakartzan pozengatik. Ni musikari eta marrazkilari frustratua naiz, geratzen zaidan arte modalitate eskuragarriena idaztea da. Egia esan, beti egin dudana zerbait da, txikitatik.

—Idaztetik bizi eta, hala ere, zuzenbidea ikasi zenuen.

—Zuzenbidea ikasi nuen filosofia, historia edo kazetaritza ikas nezakeen bezala. Ez zidaten sinisten baina galdetzen zidatenean ea zergatik ikasten nuen zuzenbidea, hobby gisa egiten nuela esaten nien.

—Profesionala izateak mertzenario bihurtzen omen du idazlea...

—Euskaraz pixka bat diferentea da, ez zaude editorearen menpe. Alegia, Alfaguara moduko argitaletxeetan dauden idazleek urtero liburu bat kaleratzeko konpromisoa dute. Zenbateraino idazten duten nahi dutena ez dago garbi. Hemen ez da horrela; gehiago zaude mila gauza egitearen menpe. Liburuaren tirada txikia denez eta liburuek ematen dutenetik ezin denez bizi, pixka bat egunkariaren menpe egon behar. Idazlea idaztetik bizi da baina ez bakarrik bere gauzak idaztetik, baizik eta mila gauza idaztetik. Dirua ematen dizuna bukatutakoan, beharbada ez zaizu gogorik edo beharizanik geratzen ipuin bat idazteko. Hori da daukan

arriskua.

—Harkaitz ala editorea irten ohi da irabazle?

—Beti idazlea. Editoreak aholkuak ematen ditu eta horretan ona da. Ematen dituen aholkuak zentzuzkoak izaten dira eta askotan kasu egiten zaio. Editore bakoitza ona da gauza baterako, horregatik niri gustatzen zait argitaletxeak aldatzea. Argitaletxe batean gehiago arduratzen dira hizkuntzaren zulentasunaz, bestean gehiago istorioaren koherentziak.

—Ez omen duzu inspirazioaren sinesen.

—Hori betiko topikoa da, baina egia da inspirazioak harrapatu behar zai-

TESTUA: ESTI EZKERRA
ARGAZKIA: MIKEL MARTINEZ

Jazz-ekin esaten zidaten joera oso surrealista nuela eta hemengo zerbait buruz idatz nezala. Pasaia Blues-en hastapena hori izan zen. Ez da liburu politiko bat baina indarkeriari buruz zer pentsatzen dudana jakin nahi duen pertsona inteligentek bertan topatuko du.

—Obra originala sortzea: errealtatea ala utopia?

—Errealtate izan daiteke baldin eta obsesio bilakatzen ez bada. Horrek azkenean frakasora eramaten du bat. Onartu behar da gustuko autoreak hasieran kopiatu egin behar direla eta gero asesinatu.

—Atxagak dio plagioa erabat kreati-

“Musikari eta marrazkilari frustratua naiz”

tuela ez sofan baizik eta mahaian. Badago zerbait inspirazioaren antzekoa, baina nik gehiago sinesten dut tailer mekanikoan. Ipuinak auto baten motor eta bujia multzoa bezala ikusten ditut: arrankatzeko badakizu zer egin behar den. Batzuetan arrankatuko du eta sekulako karrera egingo du ipuinak; beste batzuetan, arrankatuko du baina justu-justu helduko da helmugara. Baina idazleak badaki zer egin behar duen ipuinak arrankatzeko, zer falta den hor.

—Idazteko orduan maniarik?

—Bai, pixka bat iparrorratz moduan erabiltzen ditudan argazki, postal, figura txikiak izaten ditut aldamenean.

—Aditu batek esana: idaztea errealtateari aurre egitea baino errazagoa da.

—Segun zein egun ados egon naiteke edo ez. Gaur ez nago ados. Nire ustez, idazleak bi gauza ditu: batetik, badu ebasio zentzu hori baina, bestetik, badauka justu kontrakoa. Errealtateari aurre egin eta hori egiteko era bat izan daiteke. Beluna

boa izan daitekeela.


—Dudarik gabe, erabat ados nago. Abiapuntu bezala duzun hori hainbeste aldatzen da..., askotan ezezagun egiteraino.

—Belaunaldi gazte baten ordezkari, zer moduz euskal literaturaren behi sakratuen artean?

—Arratiako txekorra bezala: txikerra baina gogorra. Behi sakratuak hor badaude zerbaitegatik izango da. Nik idazten dut beraiek idazten zutelako. Hamar urterekin Obabakoak irakurri nuen eta liburu hori izan zen literaturan sartzeko atea. Obabakoak kopiatuz hasi nintzen idazten. Alde horretatik ez naiz belaunaldi haustura, nik jarraikortasun bat ikusten dut.

—Idazle bezala erronkarik?

—Ez dakit. Istorio asko bururatzen zaizkit eta horiek idatzi nahi ditut. Badaukat behar eta gogo bat istorioak eraikitzeko. Liburu batetik bestera hobeto egiten saiatzen naiz eta sentitzen dut hobeto menperatzen dudala. Ofizioa pixka bat lantzen joatea, hortik kanpo ez daukat aparteko helbururik. Hemendik denbora batera ez



“Obabakoak” kopiatuz hasi nintzen idazten

badaukat idazteko gehiagorik, onena erretiratzea eta beste zerbait egitea izango da. Hala ere, une honetan ez dut hori gogoan, ideiak dauzkat eta horiek garatzeko ezagutzen dudana era bakarra idaztea da. Oribide bihurtu badaiteke, luxua da hori. n

“Harkaitz Cano
Tailer Mekanikoak” honako
produzio literarioa eman
du argitara:
Kea behelainopean, Pavlov-
en txakurrak,
Radiobiografiak,
Beluna jazz,
Pasaia blues.

Sautrela

Irakurzaleen aspaldiko eskakizuna zen: noizko literatura programa bat ETBn? Ba, azkenean jarri dute eta gainera sorpresa ederra hartu dugu ikusteko parada izan dugunok. Saio atsegina, ikusterraza, baina aldi berean edukiz beteaz aurkezten digu Hasier Etxeberriak astelehenero, Sorginen laratza-ren ondoren. Irudi zainduak, gidoi ona. Literatura maite baduzu, ez ezazu programa hau galdu. Gogoratu, astelehenero, hamabiak alderra ETB1ean.

Irakurzaleen txokoa

Bizarra Lepoan Euskara Elkarteko Irakurzaleen Txokoa agur esan dio aurtengo ikasturteari maiatzaren 2an Jon Alonsok emandako hitzaldiarekin. Literaturzaleen talde honen eskutik Koldo Izagirre, Xabier Mendiguren Elizegi, Inazio Mujika Iraola eta Harkaitz Cano izan ditugu bisitari Getxon euren lanaren inguruan azalpenak ematen. Datorren ikasturtean gehiago.

	UK etxean
	jasotzen
	jarraitu nahi
	baduzu... bete
	zure
	harpidetza fitxa
	(ikusi 2. orrialdea)
	2.000 pta. / urte

Unibertsoaren azalpena

Javier Quevedok, Gorlizko alkate ohiak, 25 urte eman ditu unibertsoari azalpena bilatzen. Orain bere teoria erabat amaitu duela esan digu.

Askok ez diote sinesten, beste hainbatek zorrotzat dute. Hala ere, egindakoaz harro dago. Gorlizko alkate izan zen aspaldi, eta bertakoa den arren, gaur egun Plentzian bizi da. Ingeniaritza ikasketak egin zituen eta orain Bizkaiko Foru Aldundian lan egiten du. Bulegoa berak osatutako mapez dekoratuta duela aitortu zigun. Bere etxeko egongelan jaso gintuen liburu, orri eta bere teoriaren euskari diren hainbat planetario kuantikoz inguratuta. "Honi buruz hitz egiten hasten naizenean erlojua gelditu egiten zait. Gose naizela ere ahaztu egiten zait". Azken hitzaldia Madrilan eman du DYNA aldizkariak gonbidaturik. Meteorologia izan du hizpide, baina bere teoria azaltzeko aitzakia baino ez da izan.

Urte askotako lana

Hitz egitea gustatzen zaio Quevedori, batez ere bere teoriaren inguruan. Seme-alabek gela guztietatik bota dutenez, azkenean egongelan bukatu du bere tramankulu guztiekin, telebista aurrean. Ez da lanarekin obsesionatzen eta nahi duenean deskonektatzen du. 25 urteko nekeen ostean pozik dago. "Orain teoria erabat bukatuta daukat. Badu hasiera eta amaiera bat. Oraingo erroka kontzeptuak modu argiagotan aurkeztea da".

Teoriaren mamia unibertsoari azalpenaren bilaketan oinarritzen da. Berau egituratzeko Quevedo arrainen ohiturak aztertzen hasi zen eta kalkulu batzuk eginda jarduera uneekin, hau da, arrainak amuan erortzen diren uneekin taula bat osatu zuen. Arrantzaleen artean arrazoia izan nahi zuelako hasi zen ikerketan. "Arrainek ez zirela kasualitateagatik amuan erortzen erakutsi


nahi nuen, bazegoela arrazoi zientifiko bat tardean". Kalkulu matematiko hutsak dira, azken finean, baina zenbaki horiek jarraikortasun bat dute.

Taulatik abiatuta Quevedo oharatu zen kalkulu horiek egiteko erabilietako geometria ez zela bera ikasle zela irakatsi ziotena. Are gehiago, geometria fraktala izeneko horrek unibertsoaren izaerari azalpena emateko balio zuen eta baita historiari oraindik argitu ez dituen hainbat misterio ere. Piramideen egitura, adibidez. Hortik abiatuta erraz osatu ahal izan zuen unibertsoa irudikatzen duen maketa: planetario kuantikoa.

Urte hauetan hizkera hobetzen ere saiatu da. Izan ere, zientzialariak ez diote kasu handirik egiten, batez ere hizkera egokia ez darabilakoa. Bere burua hezi behar izan du Quevedok borrokan jarraitu ahal izateko. Dena den, ez du bere burua teoriaren egiletzat hartzen. "Beti esan izan dut ez naizela lehena hau guztia esaten. Teoria ezin hobeto menperatu zuten zibilizazioak egon dira lehena go ere".

Teoriak baieztatuz doaz

"Ez dut neure burua zientzialarizat. Ez dauka zentzurik. Zientzialari hitzari handinahakeria deritzot. Kontzeptuak nola adierazi ikasi behar izan dut zientzialariak niri ulertzeko. Hala ere, egia da batzuk nik aurkitutakoak jelskor daudela. Edonori gustatuko litzaioke nire teoria berarena izatea". Askok sinesten ez dioten arren, Quevedok bere teoriarekin aurrera darrai. Bere burua betidanik zaletutzat jo du eta entzun nahi dionari bere teoria azaltzeko prest dago beti. "Nire teorian ez dut inor baztertzen ezta esanda dagoenaren kontrakoa justifikatzen ere.



Javier Quevedok ez du bere burua zientzialarizat jotzen; zalea da

Esanda dagoena ondo esanda dago, baina nik orain arte erantzunik ez zuten galderei erantzuna eman diet". Javier harro dago oraindik inork ez duelako bere teoriarik ezeztatu. Berak aurkitutakoa NASARA

"Teoria adituen aurrean defenditzea gustatuko litzaidake"

bidaltzen saiatu zen baina handik jaso zuen erantzuna hutsaren hurrengoa izan zen. Gauza bera gertatzen zaio adituekin baina jadanik badaki beraiekin aritzea alferrekoa dela.

Orain, teoria erabat egituratuta duelarik, nahi bakarria du Quevedok.

"Teoria adituen aurrean defenditzea gustatuko litzaidake. Baina asko minduko ninduke nire lan guztiaren errekonozimendua teoria azaltzeko ahalmenik ez dudanean heltzea. Nahiago dut hilik egon hori gertatzea baino. Entzun diezadala nahi duenak, mundua ez da nirekin bukatzen. Sistemaren kontra ezin naiteke joan baina dakidanaren aztarnak utz ditzaket. Historiak besteak epaituko ditu, ez ni." n

Paisaiak

Bilboko Berta Belaza Galerian Mikel Eskauriaza artistaren lanak ikus daitezke

Duela hamar urte hasitako lan esperimentalaren ondorioak erakusten ari da Mikel Eskauriaza (Getxo, 1969) Bilbon. Irudi bereziak dira, argiaren arrasto, erregistro fotografikoak. Argazkiak baino pinturatat jotzen ditu Mikelek bere irudiak, izan ere, margotzerakoan pintzela mugitzen den moduan, berak kamera hona eta hara astinduz, argiarekin pintatzen (hartzen) ditu argazkiak. Akziozko fotografia egiten duela esan genezake. Irudiak ez dira ordea, zoriaren fruitu, berak urteetan landutako teknikaren emaitza baizik. Gainera, badute guztiak interes piktoriko bat: trazuagatik, koloreengatik... Irudi oso grafikoak eta poetikoak dira eta bere hitzetan, nolabait, paisaiak ere badira, hau da, leku eta une jakin batzuen ez-ohiko testigantzak (begiratu goiko argazkia). Orain, hain modu frenetikoan aldatzen ari den paisaiaren gainean lanean ari da



Mikel. Argazki, nahi bada, kritikoak dira (adosatuak...): etorkizuneanliburu bat osa dezakete. n

Mikel Eskauriaza, fotografia

Maiatzak 20 arte. Berta Belaza Galeria Arriquirar plaza 5, Bilbo Astean zehar, 17:00 / 21:00

Artelana: "Romería en Berango", Aurelio Arteta



Madrilan inauguratu berri zen Bilboko Bankuaren freskoak. Honen ostean, 1924an, Bilboko Arte Ederretako Museoko zuzendari izendatu zuten. Denbora urriz irau zuen karguan, zinegotzi batekin izandako arazoak zirela eta. "Bañistas" (1930) izeneko artelanagatik Espainiako margogintzaren sari nazionala lortu zuen. Espainiako gerrak Madrilan harrapatu zuen Arteta eta handik erbestera (Mexiko) jo behar izan zuen. Irudian ikus dezakegun koadroan egileak bere alde alai eta koloristena erabili batean. Bilboko Arte Ederretako museoan bere obra batzuk ikus daitezke. TESTUA: ALBERTO ZEBALLOS

Oharra

Aurrerantzean, "Artelana" atalxoan Uribe Kostarekin zerikusia duten artelanak azalduko dizkigu hilabetero Alberto Zeballosek



bidaiak

Ekuador, herri zoragarria

TESTUA ETA ARGAZKIAK: NAGORE ETXEBARRI



Denetarik topa daiteke Ekuadorren: mendi garaiak (Andeak), baso tropikalak (Amazonas), erreserba naturalak (Galapagoak)... Hara abiatzea aukeratu zuen Nagore Etxebarri. Lerro hauetan bere bidaia kontatzen digu.

Nahiz eta horrelako ametsa gauzatzea buruan luzarozan izan, azken asteetan erabaki nuen zein izango zen bisitatu nuen herrialdea. Honek, imajina dezakezuenez, azken uneko zurrumbiltoa eragin zidan; baina hala ere, 24 ordu inguruko bidaiaren ondoren, bakea aurkitu nuen Quito. Quito lurreratzeak xarmagarria da, mendi garaien artean eta bertako kale nagusiaren parean egiten baita. Hara iristean bertako txanponarekin ere ohitu beharra, sukrea hain zuzen ere; lehenengo milioiak taxirako, afaltzeko eta ezer gutxi gehiagorako eman zuen. Gauzak horrela, asko poztu nintzen aurretizik hotel ona erreserbatu izateaz; ordurako, punta-puntako ezaugarriak zituen hiriburu batean nengoela ulertu nuen. Han, hemengo ibiltari batekin elkartu eta gure abenturari ekin genion.

Quitok hasieratik engantxatu gintuen: hiri zaharra deitutako auzo marginala baina ondare kolonialak gordetzen dituena, artisauek eta jaki azoka indiarrek eta alde funtzional eta modernoak... Hiriburua zen benetan guretzat herrialde honen gunea; bertatik irteten baitira leku guzti-tietara doazen autobusak. Bertatik irten ginen kostaldearen eta atsedeenaren bila hasiera batean. Hamabi ordu eman genituen autobus batean Esmeraldas-eko hiriburu ziztrinera iristeko. El Niño fenomenoaren eragi-

nez, lokatzetan murgildurik zegoen eta ur hornidurarik gabe. Gainera, delinkuentzia izugarria zen eta, ondorioz, ahalik eta azkarren irten ginen handik, Atacames-eko herritxora joateko. Han aste bat eman genuen ohizko oporren irudia gauzatzen: hondartza erraldoian paseo amaigabeak, bertako itsaskiak dastatu eta jendea ezagutu. Giroa oso lasaia da, eta batez ere turismotik (eta turismoa egiten) bizi dira. Hala ere, aipatu nahi nuke manglarenak suntsitzen ari zirela kamaron haztegi erraldoiak eraikitzeke. Eredu hori zoragarria da eta neurri batean ikutu gabe dago.

Andeak

Ondoren eta barne aldeko ospeak deituta, eta gure mendizale grinak bultzatuta, Andeen eremura abiatu ginen. Riobamba izeneko hiri txikira joan ginen Chimborazo gailurra hurbiletik ikusteko. Ezin izan genion muzin egin eta uztaileko ilargi beteko gauean gailurrara iristeko txangoa prestatu genuen gida, materiala eta guzti... 6.310 m-ko gailurra lortuko genuen! Ideia horrek erabat txoratuta ninduen baina aurreko egunean orkatila okertu nuen eta gidak, gailurra lortuko ez nuelakoan, ez zidan abiatzeko baimenik eman. Andeatiko mendikatetik autobusez jarraitzea erabaki genuen. Baños herria aholkatu ziguten. Nahiko herri garaia eta menditsua izanik, zaldiz

paseatu ginen hango paisai ederra bezain bortitza ikustatzeko. Herritarrak andinoak ziren eta alde nabaria dute kostaldekoekin; oso langileak eta isilak dira. Han badira hamaika agentzia rafting, bizikleta zein zaldi txangoak edo junglara bidaiatxoak eskaintzen dituztenak. Junglara bidaiak! Bai, Ekuador eta Kolonia aspaldidanik gerran dabilta Amazonas ibaiko ibaiadar baten jabetzagatik. Beraz, badu eremu zabal bat oihan itxi-itxia dena eta hura ezagutzera joan ginen.

Cocako herri txikiaren motoredun kanoa luze bat hartu genuen eta beste bost atzeritarrekin batera ibaian gora egin genuen. Zortzi ordu eman genituen kanpamentura heldu arte. Han txabolatxo batzuetan eman genituen lau egun zoragarri: argirik gabe, transistore pare bat (kanpoko munduarekin lotura bakarra) eta ingurukoarekin flipatzen une oro: pirañak arrantzatzen genituen afaltzeko, limoi zaporeko inurriak dastatu eta hilgarriak izan daitezkeen beste batzuk ezagutu ere. Gure eskumuturra bezain handiak ziren armiarrekin bizimodu baketsua egiten genuen eta ikusi ezin genituen hamaika animalien oihuek, maiz, zur eta lur uzten gintuzten. Esku artean hartz nagia hartu genuen, baita krokodilo txiki bat, (besteek, nik neuk ez). Tximino handien urruneko garrasiek hainbat txori uxatzen zituzten, kolore bizi-bizkoak, eta egunsenti batean

izurde larrosa delakoa ikustera joan ginen eta kostata baina bai ikustea lortu ere.

Galapagoak

Argi dago oihanak liluratu ninduela, baina Galapago irlak itxaroten genituen. Horrela, ba, Baltrako irlara abiatu ginen. 100\$ ordaindu behar dira Galapagoetako erreserba naturalean sartzeagatik. Inguru horretan soilik Santa Cruz irlako hegoaldean dagoen Puerto Ayoran bizi daitezkeen hara eramaten dute turista. Oso herri txikia da eta egun pare batean ezagutu daiteke, Tortuga Bahía izeneko hondartza zoragarria eta Darwin Station interesgarria barne. Arrazoi honegatik uste dut ez duela merezi haraino joatea, irletatik gutxienez lau-bost eguneko itsasbidaia bat egiteko asmorik ez badago. Guk agentzia batekin txangoa zehaztu eta katamaran batean eman genituen bost egun Rábida, Sombrero Chino, Santiago irlako Bahía Sullivan, Bartolome irlako pinakulu ospetsua eta ilargi paisaia eta Mosquera ezagutzen. Egundorietan itsas lehoi, marrazo txiki zein pinguino artean bainatu ginen; flamenko larrosak eta pikudo oinurdinak ezagutu genituen, eta sumendiek utzitako ondorioen artetik ibili ginen. Honek guztiak ametsa ematen zuen eta beldur naiz denborarekin izan zuen edertasun eta lilura hura galduko ez ote duen.

Bertakoen ganora faltak gure

egonaldia nahi baino gehiago luzatu zuen. Baina horrelako egoera itogarriaren geundela, euskal arrantzale batzuekin topo egin genuen eta euren itsasontzi handian bidaia osoko afaririk onenetarikoa izan genuen. Benetan topaketa atsegina!


Hurrengo egunean Quitora itzuli ginen eta handik abiatuta azken aurreko txangoa iparraldera egin genuen, Otavalo herrira. Bertan izugarriko azoka ospatzen zen bertako produktuekin: aziendak, jakiak, eskulanetarako lehengaiak eta artisautea. Zortzi ordu inguru ibiliko ginen artisautea ikusten eta ez dut uste saltokitxo guztiak ikusi nituenik: jertseak, larruzko gauzak, tapizak, zilarrezko gauzak...

Gure bidaia bukatzen ari zela ulertuta, kostaldera itzuli ginen, Muisne izeneko irlatxo bitxira. Hasieran dena nahiko tetrikoa iruditzen arren, ezin paradisiakoagoa zen mendebaldeko muturra: 25 km-ko hondartza palmeraz inguratua, bi ostatu (horietako bat bertan behera utzitakoa), jatetxe moduko bat, hamakak eta dortoken arrastoak.

Handik Quitora joan ginen etxera ekarri behar ninduen hegazkina hartzera. Ezin sinestu: hilabete eta erdi pasatua zen. Han zantalzatan izan nintzen, ederto ateratako bidaia luzatzeak edo denbora gehiagorako geratzeak ez ote zuen esperientzia ederra zapuztuko. Triste itzuli nintzen etxera. n



Ezkerretik eskuinera:
Baños herria
Amazonas oihaneko txabolak
Itsa-lehoiekin Galapagoetan
Azoka Quito



EKUADOR

Populazioa: 10.800.000
Biztanle-dentsitatea (biz./km²): 40
Hiriburua: Quito
Hiri nagusiak: Guayaquil, Cuenca, Machala...
Erligioa: %93,5 katoliko, %6,5 beste
Talde etniko nagusiak: %49,9 ketxua, %40 mestizo, %8,5 zuri, %1,6 beste amerindiar
Moneta: sukrea

argazkiak

Argazkiak: Luis Jauregi

ARGAZKIAK: LUIS JAUREGI



LUIS JAUREGI



Luis Jauregi (Oñati, 1960) gaur egun Gara egunkariako argazkilaria da. Lehenago, eta hamaika urtez, Egin-en ibili zen lan berbera egiten. Kazetaritza ikasketak eginak ditu, eta orain arte ez du inolako fotografia saririk jaso, bere hitzetan "sekulan argazkiri aurkeztu ez dudalako".

TESTUAK: ESTI EZKERRA / ARGAZKIAK: MIKEL MARTINEZ



Angela Tejedor

Espainiako junior txapelketan 3.000tan hirugarren gelditu da

Angelak Getxoko atletismo taldearekin azken urteetan lortutako emaitzak aipatzen hasiko bagina labur geldituko ginatke. Euskadiko hainbat kategoriatako errekorrak berak ezarriak dira eta, besteak beste, Euskadiko kross txapelketa izan da aurtan, laugarrenez jarraian.

—Noiz hasi zinen atletismoa egiten? —OHOKo bosgarren mailan, hamar urte-edo nituenean. Hasieran ez nuen gustuko baina taldean sartzea erabaki eta orain arte bertan jarraitu dut.

—Zenbat denbora eskaintzen diozu kirolari?

—Egunero entrenatzen gara, beharrezkoa da ehuneko ehuneko egoteko. Egun libre bakarra dut baina gustura entrenatzen naiz, eta ez dut zigortzat hartzen. Gainera, jende jatorra ezagutu dut atletismoari esker.

—Maila nahikoa egoten da inguruko lehiaketetan?

—Edonora goazela ere betikoak bilt-

zen gara eta azken finean, zeure burua gainditzeko ezinbestekoa da aparteko lehiakideak izatea. Horren beharra somatzen dut gehien, lehiakortasun handiagoa egotea kirolarion artean.

—Epe laburrera ba al duzu erronkarik finkatuta?

—Datozen probetan aurreko denborak hobetzea espero dut eta ahal dudan neurrian postu ona eskuratzen saiatuko naiz. Urterik urtera hobetu beharra dago eta horretarako entrenatzen jarraitu behar dut.

—Kirol honetatik bizitzeko asmorik?

—Garbi daukat bizirauteko bestelako bideak jorratu behar direla eta atletismoa hobbya baino ez da niretzat. Indarrak agortuko balitzaizkit utziko nuke. Ahal dudan arte aurrera jarraituko dut baina diru askorik irabazteko aurrikuspenik gabe. n


Azkarrena

Mikel Bildosola gaztea puntako igerilarien artean dabil

Mikel Bildosola, gaztea izan arren, aparteko kirolaria du. Hamar urterekin hasi zen igeriketan, Faduran antolatutako ikastaroo batzuetan; kirola gustatu eta bertako klubean sartzea erabaki zuen. Ordutik hona ibilbide polita egin du getxoztarrak. Orain arte Euskadiko eta Bizkaiko txapelketetan beti izan da garaile eta Espainiakoan duela bi urte lehiatzen hasi bazen ere, iaz 100 metro askeko proban eta aurtengo 50 metro askekoan bigarren izan da. Mikelek igeriketa kirol gogorra dela onartzen du. Prestakuntza aldetik asko eskatzen du eta astean sei egunetan entrenatu behar du. Zaila izaten da eritimoa eramatea, baina Mikelen ustez, neurri batean horrek kirolariak igerilekuan egiten dituen metroekin ere badu zerikusia.

Begirale batzuen eskutik zentro berezi batera joan zen Mikel bere lana hobetzeko. Han zegoela asko-

tan gurasoek kirola bertan behera uzteko esaten zioten, inoiz baino metro gehiago egiten zituelako igerian eta sakrifizio handiegia zelako. Baina iaz itxi zuten, berriro etxean da eta kirolarekin aurrera egitea erabaki du. Euskal Herrian kirol honetan ona eta arrakasta izateari zaila deritza Mikelek. Izan ere, Bartzelonako egoeraren aldean hemen badago zer hobetu. Bartzelonan kirola ikasketekin lotzeko modua lortu dute eta kirolariak arazorik gabe entrena daitezke ikasketak alde batera utzi behar izan gabe. Etorbizunerako Mikelek argi dauka zein diren bere helburuak: Espainiako txapelketan oraindik dastatu ez duen urrezko dominaren bat lortzea. n



Bost Nazioak

Idoia Salazar eta Nerea Martinez han izan ziren

Idoia Salazarrek eta Nerea Martinezek badute zertaz hitz egin luzaroan. Getxo Rugby Taldeko bi jokalariek Bost Nazioetako txapelketa ospetsuan izan dira Espainiako selekzioarekin. Poz-pozik itzuli dira, laugarren postua besapean. Hala ere, Idoia hirugarren postuari ihes egiten utzi izanaz damutzen da. Bere ustez, uneoro egon dira selekzio indartsuenen parera baina azken unean selekzioen arteko ezberdintasunak agerian geratu dira. Ez joko aldetik, baina bai profesional izateak dakartzan abaintalengatik. Txapelketa aurreko sailkapen probetan Idoia Nerearekin batera Iraide Manzano egon zen. Getxoko

jokalariek baina, zorte eskasa eduki zuen. Lesionatu eta bertan behera gelditu zitzaizkion aurrera egiteko aukerak.

Bost Nazioak atzean utzita, Idoia eta Nerea Almerian jokatuko den Europako Txapelketari begira daude. Talde erraza suertatu zaie, Frantzia eta Ingalterra gabe, eta horregatik finalean egoteko aukera asko ditzutela badakite. Etorbizunari dagokionez, Idoiak badu helbururik. Bere ametsa urte bi barruko mundiala jokatzea da, errugbi jokalaria batek lor dezakeen garrantzitsuena. n



Bodeguilla

Butron

gurean euskaraz!

Bidebitarte 5

ALGORTA

GAZTANAGA
INTERSPORT

*Kiroletarako
behar duzun
guztia!*

Amesti 8 | Sarrikobaso 42 | Sabino Arana 93
T: 4910605 | T: 4300397 | T: 4646617
ALGORTA | ALGORTA | LEIOA

aldai

TAPIZTEGIA

DEKORAZIOA

ERAKUSKETA

ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

GETXOKO NESKEN SASKIBALOI TALDEAK jokalariek behar ditu. Helburua lehen mailan dabilen taldea berritzea da eta erregionalerako beste bat sortzeko asmoa dute. Saskibaloia gustukoa baduzu eta 17 urte edo gehiago badituzu, hauxe izan daiteke zeure aukera. Izena emateko edo informazio gehiago eskatzeko, 610 05 30 11 (Jose Manuel) telefono zenbakira deitu.

Jan

gaizka escudero



villabotas-ekoa

Berdela

Algortako erara

Berdela ez da oso arrain estimatua gure artean seguru asko aurritzi asko ditugulako. Hala ere, arrain goxoa, besteen aldean oso merkea eta osasuntsua dugu berdela. Gainera sukaldean aukera asko ematen ditu: labean, marmitakoan...

Gaurkoan edonork bost minututan presta dezakeen platera zelan egiten den ikusiko dugu: berdela Algortako erara.

Lehenengo berdela erditik zabaldu, garbitu, hezur nagusia kendu eta gatz apur bat bota. Plater batean ogi birrindua, berakatzatza txikitua eta perrexila nahastu. Ondoren honekin berdela albardatu eta olibazko olioan frijitu. Laguntzeko zeozer freskoa da onena, adibidez, letxuga apur bat tipula txikiagaz. Txakolin apur batekin jaten badugu, primeran.



edan

tsaso arana, jolastoki-koa



Kata

Faustino krianza 95

Bodega: Faustino SL, Oion (Araba) • Jatorrizko izendapena: Errioxa •



Begiari gerezi kolorea gorri iluna erakusten dio ardo honek, garbia distiratsua da. Sudurrean, aroma askotarikoa, fruta gorriak eta ondoan apur bat minerala. Ahoan egur eta fruta ikutuak azaltzen dira; ardo zapoetsua da. Egurraren taninoen aldean, fruta helduarenak gehiago nabarmentzen dira.

Jakin


Abona jatorri izendapena

Gaur egun estatuan badira 54 jatorri izendapen (erderaz D.O.). Ardoa leku gehiagotan egiten da baina ez dute jatorri izendapenik lortu. Oraingoan Abona D.O. ezezaguna ikusiko dugu. Tenerife irlako hegoaldean dago eta Adeje, Arona, Villaflor, San Miguel Arico, Fasnía eta San Miguel de Abona hartzen ditu izendapen honek. Beltzak eta gorriak ere egiten diren arren, ezagunenak ardo zuria dira. Mahats motei dagokionez, zuria, listan zuria, verdello, malvasia, sabro eta bermejuelo dira landatuenak, beltzak berriz: listan beltza eta negramoll.

Ardo zuriek jantzi distiratsua izaten dute; arinak, sikuak, alaiak eta dotoreak izaten dira.

Bodegak eta ardoak:

- Coop. Cumbres de Abona.
 - Flor de Chasna 1998 zuria
 - Viña Peraza Ecológico 1998 zuria
- La Ortigosa SL
 - Leña Blanca 1998 zuria



www.euskaltel.net/fcmerino sakatuz ikus daiteke web orrialde hau

sarean

argazkiak

TESTU: J. A.

Eguneroko bizitza

Bere argazkiak erakusten ditu Fede Merinok internet-en

Gero eta gehiago dira euren lanak sarean ikusgai jartzen dituzten artistak, erakusleho merkea eta efikaza baita Internet. Horixe egin du Fede Merino argazkilaria getxoxtarrrak, Carlos bere semearen laguntzaz. Azken hogeita hamar urteetan Getxo motibotzat hartuta (jendea, herriko bazterrak, kostaldea...), milaka argazki hartu ditu Fedek. Eguneroko bizitzaren argazkiak dira, nolabait, urteetan luzatu den lan etnografikoa. Orain itzelezko artxibo honen lagin bat ikusgai dago sarean.

Baina lehenago esandakoaz gain, atal ezberdinetan sailkatutako askoz ere argazki gehiago ikus daitezke web orrialde honetan, orrialdea ez baita soilik Getxori buruzkoa, bere lanaren laburpen bat baizik. Horrela ba, euskal eskultoreen (Larrea, Mendiburu, Ibarrola...) lanen katalogoa ikus daiteke, edo itsas-adarrari buruzko argazkiak, Labe Garaikoak, euskal kirola gai

durenak... Azken urteotako erai-kuntza adierazgarriek ere badute euren atala (Guggenheim eta Euskalduna Jauregia).

Argazkiak errez eta arin "jaitzen" dira; ordu asperturen bat modu atseginean igarotzeko, aukera ona.




Carlos eta Fede Merino



ARENAS futbol taldeak bere web orrialde ofiziala jarri du sarean. Bertan zaleak taldeari buruzko hainbat kontu interesgarri aurkituko ditu: historia, argazki zaharrak, denda birtuala, partiduetako kronikak, saikapenak... Helbidea: www.euskaltel.net/valencia.

BOST urtero jaialdia antolatzen dute Boisen hango euskal amerikaruek. Aurten uztailearen 27tik 30era ospatuko dute. Jaialdiaren berri (egitaraua, sarrerak, aterpeak...): www.jaialdi.com

ALGORTAKO ITXARTU Dantza Taldeak badauka bere web orrialdea; argazkiak eta azalpenak topa daitezke: www.welcome.to/txartu



Zure eruz

Publizitatea aetatizilbur

Hemen nemeñ

491 13 37
73 31 194

Erosketa etxera eroaten dogu!!

ORDUTEGIA

Lan egun eta zapatuetan:
9:00-14:00 / 17:30-21:00

Domeka eta jai egunetan:
9:00-14:30

dena-ona supermerkatua

Gatzarriñe 5, % 94 676 19 99 LARRABASTERRA

Sopela ate eta armairuak

Sabino Arana 14, Sopela

t: 94 676 54 44

Loteria Sopela

Iparragirre 6, Sopela

BIZARRA LEPOAN EUSKARA ELKARTEAK

EUSKARA SUSTATZAILEA BEHAR DU

LAN BALDINTZAK:

- 6 hilabeteko kontratua
- lanjardun erdia
- ekainaren 15etik abenduaren 15era bitartean

BALORATUKO DA:

- ikasketak lanpostuarekin lotura izatea
- euskalgintzan esperientzia izatea
- euskara maila
- Getxoko elkarteak ezagutzea
- informatika ezagutzea
- bulegoetako kudeaketan esperientzia
- harremanetarako gaitasuna



Curriculumak Bizarra Lepoan Euskara Elkartearen egoitzan entregatu beharko dira:

Salsidu 5, 1.a ; 48990 Getxo

Epea: maiatzaren 15etik 25era
(astelehenetik ostegunera)

Ordutegia: goizez 11-13 / arratsaldez 19-20:30

Oharra

informazio gehiago nahi izatekotan deitu 94 4301932 zenbakira, inor ez balego zure izena eta telefono zenbakia utzi erantzungailuan.



"1982az gerotik
soluzio informatikoak
eskaintzen"

Elkarte Anonimoa
Colón de Larreategui, 25
Tf. 4230212

ZERBITZU TEKNIKOAK
Tf. 4230213
48001 BILBAO

BILBOMICRO



Marka



Goizalde Atxutegi
Sopelan irabazle



Aitzol de Castro
Leioan irabazle



Joanes Igeregi
"Xelebreena"



SAIOETAKO PROTAGONISTAK

Leioa	Sopela
Aitzol de Castro	Xabier Paia
Fredi Paia	Asier Legarreta
Unai Elorriaga	Josu Landeta
Pello Etxebarria	Galder Bilbao "Txapis"
Alberto de Abajo "Zoro"	Gabi Basañez
Ekaitz Larrazabal "Kaxo"	Joanes Igeregi
Josu Esnaola	Jagoba Pereda
Lander Labajo "Gufi"	Miren Loizaga
Unai Angulo	Goizalde Atxutegi
Joseba Santxo	Iñaki Benito del Valle
Gaijartzaile: Nahikari Aioa	Gaijartzaile: Auskin Sierra
Sari emole: Josu Arroio	Sari emole: P. Unzurrunzaga



guztiak hautsita

Aurten Algortako Bertsolari Eskolak bere hogeigarren urtea bete du gure eskualdean bertsozaleatasuna sustatzen, bertsolariak sortzen eta entzuleari partaidetzarako aukera zabala ematen. Eskolak, bere egitura sendoaren adierazgarri, "20 urtean zuen artean" lelopean 20 ekitaldi nagusi eskaintzeko apostua egin du, horietako hiru eskualdeko txapelketari dagozkionak.



TESTUA: FREDI PAIA / ARGAZKIAK: URTZI AZKORRA

Aurten Bizakiko txapelketa jokatu da. Beste zenbait aldatzarekin batera, eskualdeko txapelketatik abiatzeko bereizten du aurtengoa aurrekoetatik. Beraz, eskualdeko antolatzen ari diren txapelketek helburutzat, udagoienean izango den azken faserako partaideak aukeratzeaz gain, bertsozalea zein euskalduna orohar antolaketarekin inplikatzeko eta eskualdeko bertsozaleatasuna herrigintzara zuzendutako mugimendu dinamiko bihurtzea dute. Gureari dagokionez, Sopelako eta Leioako girotze afariak apirilean jokatu ziren, Larrabetzukoaren ostean. Maiatzaren 5ean Sondikan girotze saioa eta maiatzaren 27an Ipar Uribeko finala (Urbe Kosta, Mungia aldea eta Txorierririk osatua) izango dira (azken hau Algortako Zabala eskolan).

Finalean Etxahun Lekue (Larrabetzu), Orzi Garitano (Derio), Asier Legarreta (Mungia), Unai Elorriaga (Algorta), Xabier Paia (Algorta) eta Fredi Paia (Algorta) arituko dira. Txapelketak hurrengo faserara pasatuko da zuzenean, eta besteek aukera izango dute bertsozalearen puntuaren arabera. Egundoko parte hartzea Esanenez parte hartze mailan aurreikuspenak jo eta txikitu egin dituela errealitateak. Aurreko Urbe Kostako Txapelketa bietan (1994-1997) abestu zuten bertsolariak dozena eskasera heltzen ez baziren ere, hiru urtetan kopurua ia bikoiztu egin da, 20 bertsolari parte hartzeraino. Lehenago dena saio batean eginen bazen, orain hiru saio egin behar izango dira. Aurreko urteetan entzule kopurua 50etik igotzea ezinezko izan bazen, aurten Sopelako eta Leioako girotze saioak bakarrik kontuan izanda, 200 entzule inguru izan dira. Badirudi Txapelketaren

inguruak eskualdeko bertsozalea bartzeko helburua bete egin dela.

Entzuleak epaile Girotze saioetan hainbat berrikuntza egin ziren, txapelketetako ohiko tentsioa laxatzeko asmoz. Hauetan nabarmenena saioko bertsolari onena eta xelebreena nortzuk izan ziren bozka bidez hautatzeko aukera. Bozkatzeko afariak txartelak erabili zituzten entzuleek. Saioen aurretik trikitixa bidez alaitutako kalejira egin zen. Gero afaldu, eta honen ostean bertsolariak lanean hasi ziren. Sopelako saioan Goizalde Atxutegi izan zen garaile; Leioakoan, berriz, Aitzol de Castro. Bi saioetako bertsolari xelebreena Joanes Igeregi izendatu zuten entzuleek. Guztiak giro jator eta umoretsuan. Bertsolariaren oso estimatua den baliabidea da bertsoetan umorea, ironia eta bertsolari bakoitzak irudimenarekin jolas-teko duen trebetasuna. Hau saritzea

pen-tsatu genuen eta txapela, bere paregabeko ateraldiengatik, Joanes Igeregi lortu zuen, parte hartzaileak gazteenak hain zuzen ere. n

BERTSO AGENDA

- Maiatzak 5, Sondika: Ipar Uribeko 4. girotze saioa
- Maiatzak 27, Algorta: Ipar Uribeko txapelketaren finala Zabala eskolan

Oharra

Aurrerantzean, "Uribertsoan barrena", bertsolariaren gaineko atal berria, eskainiko digu hilabetero-hilabetero Algortako Bertsolari Eskolak

Artea-Pekin

UNAI ELORRIAGA

16:24 / Izugarri maite naute gurasoek. 16:26 / Horrexegatik ekartzen naute Arteara asteburuero eta astegun batzuetan ere bai. Itzela da Artea. Alde batera begiratu eta koloreak, argiak, distirak, jendea; bestera begiratu eta koloreak, argiak, distirak, jendea. Artean aspertuko denik ez da jai. Amak hitz eman dit zortzi urte betetzen ditudanean bertan ospatuko dugula, Artean (Game boy batetik irtendako munstro batek ez banau lehenago akatzen behintzat, nire lagun baten lagun baten lehengusuari gertatu zitzaion bezala).

16:32 / Gustura egoten naiz hemen barruan, ez baitu hotzik egiten, ezta berorik ere. Bueno, bero apur bat bai baina ez dago eguzkirik behintzat. Ez dago euririk, ez dago haizerik. Sanoagoa da, beraz. Gauza bat ez zait gehiegi gustatzen hala ere: ezin da korrika egin. Korrika hasten bazara, ez zara urrun helduko belau baten kontra tupust egin gabe edo hanburgesa lar jan dituen emakume baten ipurdiaren kontra edo piper gorrien lata-piramide baten kontra. Ipurdi baten kontra eginez gero ez da oso larria; dexente akoltxatuak dira emakume lodien ipurdiak. Piramide baten kontra, oster, hortz bi utzi nituen lehengoan. Harrezkero Tasmaniako deabrua deitzen dit osaba batek.

17:03 / Supermerkatuan sartu gara. Supermerkatua da itzela. Aitak dio beti dagoela zerbait "ofertan". Herenegun azaldu zidan "ofertan" zer den baina ez dut gogoratzen. Erratzak daude gaur "ofertan". Erratz mordo dago supermerkatuaren bazter batean: gutxienez ehun edo ehun eta zazpi. "Erratz bat nahi dut" esan diot amari. Ezetz erantzun dit, jakina. Baina lehendik ere badakit zein den jarraitu beharreko taktika: tranbiak baino astunagoa izatea. Hala esaten dit aitak "tranbia zaharrak baino astunagoa zara". 17:06 / Zortzigarrenez edo hamaikagarrenez eskatu diot erratza amari. Erosi egin dit azkenean.

17:13 / Poz-pozik nabil erratzarekin. Asko maite dut ama. Amari sorpresa bat emango diodala erabaki dut; mundu guztiari gustatzen zaizkio sorpresak eta amak estimatu egingo dit. 17:15 / Gurasoak ohartu gabe, izozkailu batera sartu naiz, erratz eta guzti. Ama bertatik pasatzen denean, braustakoan aterako naiz eta sorpresa emango diot eta asko poztuko da ama. 17:17 / Akats bat dauka sorpresa honek: ez da kanpoaldea ikusten. Ezin dut, beraz, ama ikusi. 17:25 / Beste akats bat ere badauka sorpresa honek: hotz handia egiten du bertan. 17:40 / Atera egingo naiz, sorpresa izorratzen badut ere. 17:42 / Atera naiz. Ez dut gurasorik ikusten. 17:45 / Negarrez hasi naiz. 4

Aprilek ekarri doskun egun euritsuenetako batean egon gintzen alkarregaz Jose Mari Lasa eta biok, bere fameliak Berangoko Arebeta bidean dekon tabernan, Bentatxun. Ailegakeran, Jose Mari gortako aulki batean jarrita egoan, guadañe zorrozturen. Lehenengo eta behin, Akabuko Punteko azken gonbidatua etorri jakun burura bioi, alkarregaz egon eta egun batzuk barru zerurako bidea hartu euna: Ramiro Clavet. Fameliak geure besarkadarik beroena deko. Ramiro aitatu eta ostean, geure berbaldian hasi gintzen.



Jose Mari Lasa

TESTUA: ANDONI LLOSA / ARGAZKIAK: MIKEL MARTINEZ

—Atxineko kontuk eta atxineko euskeraz berba egiten natortzu, Jose Mari?
—Atxineko kontuk, atxineko kontuk, nik zer esangotsut ba, hain zaharra ez naz eta, ja ja! Euskeran ganen bai, euskeran ganen esan neintzu* zeozer, geure euskera galduko da, ezta? Eze gaurko gaztek ez dakie geure modun egiten. Gaztek eta geure kintakok bez. Nik 65 urte dekotaz, eta nire lagunakaz euskeraz hasi eta askok ezin deure berba egin, ahaztu egin dake euskeraz. Hemen beti egon da Algorta albon, eta orduko denporatan euskeraz egiten bazendun "borono" ixeten zintzen, buenoo, zelango denporak! Zelan kanbia dan hau, eh? Oin danok dabilteze euskera ikisten, ikastolatera, baia ordun sasoi, euskera beti gorde da hobato Urdulizetik Mungireko partera, Laukizen, Katiken-eta. Hemen gitxiu.

—Kontaixu apurtxu bet... zelango ixen zan zure gaztetako Berango, Jose Mari.

—Ni gazte nintzeneko Berango ba, sano kanbia da ordurik hona. Orduko denporatan, erdia baino giu baserritarrak ixengo gintzen seguru, eta bixi gintzen Berango herrin ingerun. Garikok*, beharginak ixeten ziren asko, obreruk, eta horrek bixi ziren Berango erdiko etzetan. Ni neu ia beti bixi ixen naz etzaldeaz, baia baserritar asko errelebotan ibiltzen zan fabrikatan, eta holan bai baserriko beharratan bai fabrikatan egon. Beste ofizio batzuk be egon ziren, kanteru asko, kasurako. Berangon kanteru asko egon zan, hemen etze atzeko kanteran, Artetxuteko kanteran be bai. Harrik atara eta gero idikaz eroten euzetan, eta mailu eta zintzelaz labra. Onak kanteruk, onak! Oin ez dago holaorik, gallegu batzuk baino, baia gaur karu da. Arotzan bat be egoten zan, dende, karreteruk be

—Karreteruk?

—Bai, horrek ziren idikaz ibiltzen zirenak solotan. Igual a, norberak idirik euki ez, eta solok ereiteko lurre prepara egin behar. Ordun,

karreteruk etorten ziren euron idikaz eta norberan solotan behar egiten euren. Gero paga, eta besterik ez. Horrek karreteruk egunen-egunen ibiltzen ziren ganadukaz, eta ondo jakiten euren idik gobernaten*, ez deure jakingo ba!

—Zer giu kontu lei orduko Berangon ganen, Jose Mari?

—Zer giu esan neintzu ba... ah, bai. Bakixu zein dan diferentzi handi gaurko alden? Taberna bi baino besterik ez zirela egon! Halan da ze, tabernatan danok ixeten gintzen alkarren ezeunak Bueno, atara kontuk 1.200 bat lagun egoten gintzela ordun Berangon, ez gaurko modun.

—Ordun zeu baserriko betiko gizona zara, ezta?

—Neu beti baserriko. Eta ez dekot damurik, eh? Ze haitan denporatan kalen gose egoten zan. Bueno, gose-goserik ez, baia jan gure, jan gure. Eta etzaldetan beti egoten zan zeozer txu giu jateko: indabak edo patatak edo piperrak direla, txarri hiltzen dala, egunen-egunen lapikoko indaba jaten gendun bai, baia goserik ez. Lantzen behinen lagunak etorten ziren kaletik etzera, eta igual talo zatitxu bat sobra bazan-edo, lagunak talo zatitxu jaten euren pastela ixengo balitze modun, gixajok. Hori bai, hori duzti jateko behar handi egin behar ixeten gendun, ez pentsa. Beti beharren, ze baserrin beti dago zer egin: azpik atara, gorta garbitu, satsak bota, lurre prepara, gero erein... makina bat behar. Eta behar gogorrek eh, gorputza be txarto trata, postura txarrak, auri eta hotza pasa, oin danok gaiez erreumakaz eta kontukaz, ez gara egongo ba! Oin jente askok be behar handi egiten deu, baia beti jarrite, "makina de escribir"



dalakoaz-edo. Burutik behar asko, baia gorputzak gitxi. Uf, geure beharrak kontako baneukez!

—Kontaixu zeozer ba!

—Hemen ez daolez arbola askorik, akordaten naz behin aita eta biok Jatabera joan gintzela egur bile, basora. Urten gendun hemetik idikaz, gurdin, eta Jatabera ailega. Han bason egurre egin, hantxe lo egin bason bertan eta gero hurrengo egunen etzera etorri gurdi bete egurreaz. Egurre ona, aretxan egurre, eze pinu egurrez ez deu balio surterako, kandela moduko da eta aton akabaten da. Gurbixen* egurre be nahiko da ona, eta hori batzeko ez gendun inora joan behar. Hemen Berangon, Arenburun eta Munarrikolandarako biden beti egon ixen da gurbixe. Eta gero a, Arrigunagako hondartzara iketza bile joaten gintzen be, barkuk botatako "eskarabile" koixten. Idin gurdi ondo betatu iketzaz eta atzera etzera.

—Oin ez dozu egingo atxine beste behar, ezta?

—Oin ez, zahartxu naz eta ez dot gure, ja ja. Beti nabil zeozer egiten, eze gortan ondikarren hiru idi-buzterri* dekotaz eta horrek egunen-egunen jan behar deure, gorta garbitu, gero a, solon be behat egiten dot. Etzerako patata batzuk erein, tomatek, pipertxu batzuk, indabak... hemeko indabak gozok dire, gozok! Nik ez dakit honek lekuk edo honek lurrek zer dekon, baia indabak ixten dire beste lekutan baino fina(g)ok, gozoa(g)ok. Hori a, ez dot nik bakarrik esaten. Lantzen behinen hemen tabernan indabak iminten duz, "alubiade", eta jaten dagozenak be igerrri egiten deure hemeko indaba dala. Ordun ba, holantxe nabil ni, etzerako gauzatxu batzuk ereiten baino ez. Piperrak eurak kasurako, piperrak askoz gozoagoak dira kanpokok, inbernaderokok baino, hori edonork

esango deu. Baia, inbernaderokaz urte duztin piperrak dekozuz eta negoziaroko askoz hoba da. Norberantzako bakarrik bada? Ez dago kanpoko piperraren modukorik, ez. n

* BERBAK

- Esan neintzu: esan diezazuket, esan niezazuke
- Garikok: gainontzekoak
- Gobernaten: zaintzen, manejatzen. "laboten" be esaten da hemen ingerun.
- Halan da ze: beraz
- Kaletik: heritik, hiritik.
- Gurbixe: gurbizta
- Ondikarren: ondiño, oraindik.
- Idi-buzterri: idi bikote
- Duz: doguz, ditugu

"Tabernatxu" jatetxea

- MENUAK ASTEAN ZEHAR
- ASTEBURUETAN GAUEZ, MENU BEREZIAK

Zientoetxe 39, GETXO. T: 491 16 61

DOVER IDIO

Juan Bautista Zabala 12, 2. ALGORTA

460 00 38
460 63 41

IKASTARO TRINKOAK
UDA ETA NEGUA
GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ
UMEAK, GAZTEAK ETA HELDUAK

**Ingelesa
Frantsesa
Alemanier**

Errotalde ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZI!
T: 460 38 90
Errotalde 18A
ANDRA MARI GETXO

SANTANA KIOSKOA

Prentsa eta aldizkariak
Santana kalea, Amaiarekin bat

Iñaki Bitxitegia

Ω
OMEGA AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 T: 4302345
Algorta

horoskopoa



URA

(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Zure buruarengan konfidantza gehiago eduki behar zenuke eta ez horrenbeste denbora galdu horoskopoak irakurtzen. Zura zara zure bizitzaren jabe, eta neurri handi batean zure patuaren erantzule.



AITZURRA

(Martxoak 21 apirilak 19)
Ez zara konturatzeko baina bada zurekin gustatuta dagoen pertsona bat. Hortik harreman erromantikoa abiatu daiteke, baina hala gerta dadin zure berarekiko jarrera hotza aldatu beharko zenuke.

GARIA

(Ekainak 19 uztailak 18)
Zure bizitza aldatzeko gogoia sentituko duzu, batez ere maitasun kontuetan. Aldaketa onerako izan daiteke baina aldi berean gogorra. Zure beldurrak eta lotsak aztertu.

META

(Irailak 17 urriak 16)
Zorioneko sasoi bat dator. Desiratutakoa beteko da eta horrek zure bizitza alda dezake. Une hau topera aprobetxatu behar duzu, horrelako sasoiak gixitan errepikatzen dira eta.



OTSOA

(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Neke fisiko bat baino, neke psikiko handi bat zutaz jabetuko da eta horrek esku artean darabilzun proiektu hori baztertzera bultzatuko zaitzake. Guztiarekin ezin baduzu, laguntza eskatu.



HOSTOA

(Apirilak 20 maiatzak 19)
Ahaztu itazu zure handinahieria eta egoimoa, horrela egiten ez baduzu orain arte lortutako guztia galdu dezakezu. Munduarekin haserre zabilteza eta horregatik hainbat eztabaida izango dituzu.

LASTOA

(Uztailak 19 abuztuak 17)
Zure lagunek zuek josten dute euren arazoak konpontzen lagundu ditzazun. Zure pentsaera praktikoak asko egin dezake euren alde. Aurrerago garatu ahal izango dituzun ideia bikainak.



HAZIA

(Urriak 17 azaroak 15)
Izarrak zure alde dituzu, jokoan saia zaitzake. Hala ere, dena ez da larrosa kolorekoa eta zure bikotearekin arazo sentimentalak bizi izango dituzu. Saiatzen bazarete konponduko duzue.



ADARRA

(Otsailak 19 martxoak 20)
Iraganeko oroitzapen gogorrek baztertzea lortu duzu eta zure ingurukoek ematen dizuten maitasuna eta laguntasuna gozaten ari zara orain. Zure alderik onena ateratzen ari da eta indarrez gainera.



EGUZKIA

(Maiatzak 20 ekainak 18)
Jende multzoek eta zalapartek nekazten zaituzte eta horregatik lasaitasun bila zabilteza orain, sarritan bakardadea. Indarberri behar duzu zure burua, baina kontuz: ez ahaztu zure inguruko lagunak.



IRATZEA

(Abuztuak 18 irailak 16)
Erraz gaintutako duzun krisialdian zaude, honek eztabaida antzuek eta tentsioak eragingo ditu, batez ere zure bikotearekin. Osasunak okerrera egingo du.



NEGUA

(Azaroak 16 abenduak 20)
Biktimarena eginez eta iraganeko malenkolan murgilduz ez duzu bizitzak eskaintzen dituen hurbileko plazerrak gozaterik izango. Atera zaituz zulo horretatik eta harremanetan sartu.

gurutzeagrama

EZKER-ESKUIN: 1 Bilakera 2 Aspaldikoa 3 Haize zurrumbiloa. Kontsonantea 4 Indioa. Toka, noa. Ez eme 5 Belar idor. Doi 6 Lehenengoa. Trebea... egin, goitik ari 7 Sorra. 1999an 8 Oinarrizko edari. lodoa. Leherkari ezaguna. Bokala 9 Unatu, akitu. Gaixo 10 Sugetzerra. Bokala

GOITIK BEHERA: 1 Auzoa 2 Labore-hautsa. Iparraldean, ordu 3 Gehiegi. Jaun ingeles. Errep., gorotza 4 Agintea dutenak 5 Ibilgailu mota. Har ezak! 6 Artzainek mendira eramaten duten janari kopurua. Oxigenoa. Atzizkia 7 Gipuzkoako mandia. Bostehun 8 Ilkas eta Ari. Azkenekoa. Sarrera 9 Musika nota. Gipuzkoan, zatotz. Rötgen 10 Eakoak. Gipuzkoako herria.

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

ANGEL ADRIANOREN ISTORIOAK

4

hara hor! arriskue gainera!

neuk salbatuko dut!

salbatu zaitut! ai ene polita! hil ez zarenean!

amaia

5

ken hadi paretik, kontxo!

bultzadaxo bat eta kito...

ah!

amaia

6

ezetz, bal aingeruek ez dutela sexurik ba...

ah...

baina, baina?

sniff!

amaia

Agurtzane Garcia-Etxabe

KOSTABARRI-KO KAZETARIA

“Kazetariak bere buruarekin gustura egon behar du.

Komunikabide erraldoi batean lan egitea ez da garrantzitsua”

Agurtzane Garcia-Etxabe Areetan jaio zen. Eskarmentu handiko kazetaria da eta orain dela hiru urte Uribe Kostako Mankomunitateak argitaratzen duen Kostabarrri aldizkarian egiten du lan.

—Zelan hasi zinen kazetaritzan?
—Unibertsitatean nengoela komunikabideetan kolaborazioak egiten hasi nintzen. Lehenengo kolaborazioa, Portugaleteko Onda 3 irratiari egin nuen. Horren ostean Deia egunkarian umeentzako orri bat idazten ibili nintzen. Ikasketak bukatu eta Radio Euskadin Uribe Kostako kolaboratzailea izan nintzen Florencio Torrelledok egiten irratisaioan; baina benetako prestakuntza Getxo Irratian jaso nuen. Hasieran bekadun egon nintzen Getxoko Udalean, eta berehala Getxo irratiaren proiektua sortu zen. Irratian 1992ra arte egon nintzen. Irratian nengoela, aldi berean, Correo egunkariak zeukan modari buruzko orrialdea egiten nuen.

—Orain Kostabarrri-n...
—Bai, orain dela hiru urte. Argitalpenaren helburua Uribe Kostan sortzen den informazioa, udalen arteko akordioak... herritarrei helaraztea da. Beste alde, herrietako taldeen partaidetza bilatzen dugu. Aldizkaria bi hilabetero ateratzen da, elebiduna da, eta orain, dena ondo badao, gure asmoa proiektua handit-

zea da.

—Zuk zer lan mota egiten duzu Kostabarrri-n?
—Kordinazio lanak egiten ditut. Mankomunitatearen idazkariarekin harremanetan nago eta bion artean aldizkarian agertuko diren gaiak erabakitzen ditugu. Horrez gain, aldizkariaren maketazio lanak egiten ditut, eta noski, idatzi ere idazten dut.

—Non egingo zenue lan gustura?
—Kostabarrri-n oso pozik nago. Karrera bukatu ostean irratia nuen gustukoena. Idazteak, ez dakit zergatik, beldurtzen ninduen. Baina orain irratia oso iragankorra dela konturatu naiz; zerbait idazten baduzu, ordea, berrirakurtzeko aukera duzu. Prentsa idatziaren lanarekin sentitzen den gozamen hori ezin da irratiarekin lotu. Telebista ez dut ezagutzen baina gaur egun, duda barik, prentsa idatziarekin geratzen naiz.

—Gomendio bat kazetaritzaren munduan sartu nahi dutenentzat.
—Saiatu daitezela asko mugitzen. Kazetaritzaren gauzarik onena, nire iritiz, jendearrekin harremanetan egotea da eta norberaren inguruan gertatzen dena jakitea. Kazetaritza benetan gustukoa izanez gero, komunikabide erraldoi batean lan egitea ez da garrantzitsua. Bakoitzak bere lekua aurkitu behar du, eta bere



buruarekin ondo badao, aurrera. n

TESTUA: VERONICA MUÑOZ

EGUNKARIAK 10 urte



Hasierako ilusioarekin eta orduan baino indar handiagorekin, hamar urte beteko ditu aurten EGUNKARIA-K. Baina atzera begiratu barik, etorkizunean jarriak dituzte begiak proiektu honen arduradunek. Izan ere XXI. mendeko egunkaria prestatzen ari dira; egunkari irakurgarria, baina era berean sakona. Etorkizun hurbilean, maiatzean bertan, Bizkaia, Bizkaiko informazio lokala jorratuko duen eguneroko gehiagarria aurkituko dugu irakurleok EGUNKARIAN. Bestelako erronkak ere baditu kazeta honek: web orria (www.egunkaria.com) hobetzea, errotatiba propioa izatea eta astelehenetan egunkaria argitaratzen hastea. Hauexek dira, hain zuzen ere, irakurlearen eskaerak eta urteurren hau errealitate bihurtzeko aprobetxatu nahi dute arduradunek. n

207 minutu

Sofres enpresak egin duen txostenak diotenaren arabera, 207 minutu ematen ditugu batz-beste euskaldunok eguneroko telebistaren aurrean, hau da, ia hiru ordu eta erdi. Bada denbora gero! n

diala FM

Getxo Irratia	87.6
Euskadi Irratia	88.9
Radio Euskadi	91.7
Kosta Irratia	93.2
Euskadi Gaztea	94.7
Bilbo Hiria	96.0
Bizkaia Irratia	102.6
Gorliz Irratia	107.8

MIKEL URDANGARIN KANTARIA

“Kantatzen dudanarekin hunkituta egoten saiatzen naiz”

Hirugarren diskoaren prestaketetan dabil Mikel Urdangarin. Eskozian, dagoeneko, kanta batzuk grabatu ditu. Maiatzaren 6an egingo den Elkartasun Egunerako kantua, bestalde, berea ere bada. Sasoian dabil.

Kantautore ibili beharrean pentsatu duzu inoiz talde bat egitea? Talde bat izenez diozu, ezta? Izatez bagara talde bat, nire izena daraman arren. Beste lau musikari dagoz nire atzean eta oso inportanteak dira kantuetarako eta denerako. Talde sentsazioa ematen saiatzen naiz, atzean dauden bezala aurrean egon daitezke.

Zer diferentzia dago bien artean?
Nire kasuan batek eroan behar du gidaritza, kantuak nik sortzen ditut guztiak, hori izan liteke diferentziarik handiena. Guk taldean egiten duguna kantua janzea da. Normalean talde-talde direnak elkarbizitzarako gauzak konplikatuaok dituzte. Oso berdinduta daudelako, alde batetik oso polita da baina oso nekagarria ere izan daiteke.


Estiloak ere markatuko du nonbait...
Bai, bakarlariak normalean mundu akustikoa izaten dira gehiago, mundu elektrikoan edo rockean gutxiago ibiltzen dira. Nik pentsatu behar dudana da zein musikarik lagunduko dioten egiten dudana musika estiloari. Gero kimika pertsonala, humanoa beharrezkoa da musikarion artean, musikalki ere horrelako zer edo zer igartzeko.

Kanpoaldean aritu izan zara...
Galizian Bingen Mendizabal eta Josu Zabalagaz ibili nintzen, Ferrolen eta Vigon giratxo bat egiten. Oso esperientzia polita izan zen. Euskaraz kantatzeak mugak ere hautsi ditzakeela ikusi nuen. Bueltan, galiziar jendeak egin zigun harrera onaren sentsazioaz geratu nintzen. Bestela, Eskozian ere ibilia naiz hango musikari lagunekin.

Kantetan zuk bizitako esperientziak jasotzen dituzu?
Normalean nik bizitakoak, bizi nahi nituzkeenak edo beste batek bizi izan dituenenganako hurbiltasuna da. Kantatzen dudanarekin hunkituta egoten saiatzen naiz.

Pertsonalki momentu gogorren bat pasatzen duzunean nolabaiteko terapia izan daiteke kanta bat?
Bai, izan daiteke, gero auskalo onerako ala txarrerako den. Luzerako gauza pertsonal bat kontatzen baduzu, imaginatu gustagarri egiten dela kanta hori... Kantatzen duzunean hor zabilta zeure buruari gogoratu nahi ez duzun momentu hura gogorarazten.

Disko bat egitea prozesu kronologikoa da? Hau da, denboraldi batean osatzen duzun erreperitorio bat, ala lotura jakin bat gorde dezaketen kantuak baino ez dituzu aukeratzen?
Normalean nahiko naturala izaten da. Hamalau kantu osatzen ditudanean zera pentsatzen dut: lotura bat sor daiteke kanta hauen artean? Kantak egiterakoan ez dut gai konkretu batean pentsatzen, disko bat ez da monografiko bat. Erlazioa, bestalde, zerean dago, melodia diferenteak dituzten arren, kantuak nik egiten ditudala. n



TESTUA: IÑIGO GAGO / ARGAZKIA: MIKEL MARTINEZ

2000. URTEAN KIROLA
EUSKARAZ DATOR
AEROBICA

ekainaren 29ra arte

Aerobica euskaraz

NON: SAN NIKOLAS IKASTOLAN

NOIZ: Astelehen, astearte eta osteguntan gaueko 20:30etatik 21:30etara.

PREZIOA:

- Bazkideentzat: 3.000 pta
- Ez bazkideentzat: 3.700 pta

IZENA EMATEKO:

Diru sarrera kontu korronte honetan egin behar da: 3035-0108-06-1081032766

OHARRA:

Matrikula egiteko egin ezazu diru sarrera, bankuko agiria eraman Bizarra egoan elkarteko egoitzara (Salbida kalea, 5 1ºa) arratsaldeko 6etatik 6etara.
Telefonoa: 94 430 19 32



atzera begira



ARENAS CLUB, 1976/77

BITOR EGURROLA

Arenas Club 1909an sortutako futbol talde historikoa dugu. Ez zaio asko falta 100. urteurrena ospatzeko. Bere ibilbideko lehen urteak izan ziren onenak eta besteak beste, Espainiako Errege Kopa (1919) irabazi zuen. Ondoren, arrazoi ezberdinak zirela eta, taldeak behera egin zuen . 1976/77 denboraldian, Javier Clemente entrenatzaile zela, taldea mailaz igo zen, 3. mailara hain zuzen ere. Goiko argazkian dituzue protagonistak.

ARGAZKIKOAK

Zutunik: Juan, Javier Clemente, Melendez, Zarzosa, Blanco, Fernando Uribe (Taldeko lehendakaria), Alberto, Bilbao, Valderrama, Galindez, Lasuen, Mayor "Cañete" (masajista). Erdian: Aurre, Loizaga, Pérez, Ontañón, Unanue, Landa, Lalo, Solar. Jesarrita: Mozas, Loza, Baez, Isasi, Torres, Gurrutxaga.



MUNGIA

oKINdegia

*Algortan badaukagu
artisauen ogia
izen eta jatorriz
da "ogi mungia".*

*Goizero lortzen dogu
obispoen guleria
probatu bada edo ez
dan benetako egia.*

KASUNE 28 - T: 4301076
ALGORTA



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15